

Saski Naski

AL AGUA PATOS

Uretara irakurle maitea! Atarikoak albo batera utziko ditugu eta hasteko, hasita gaude baina, leku apropos barik kanpoan geratzeko zorian egon diren argazkiak erakutsiko dizkizuegu saski-naski honetan, bakoitza ama batena baina denak interesgarriak. Behin jarriak, "Al agua patos" berori komentatuko dugu. Badirudi denbora gelditu dela! Gaur egun ere hortik eta goragotik -orduan ez zegoen tinglaurik- salto egiten dute neska-mutilek. Salto ez, dzapart, ondino hobeto, dzanga. Non edo non irakurri nuen, baina non?, dirudunek mutikoei txanponak botatzen zizkietela portura dzanga eginda urpean topatzeko. Norberak ere ikusi du hori! Udal artxiboan aurkitu dugun 1916ko aipamen txiki batekin konformatuko gara: *"El Señor Acarregui expuso la conveniencia de que se ejerza vigilancia con los chiquillos que en los muelles molestan á los forasteros y les piden dinero para sacarlo zambulléndose en el agua; y el Señor Presidente manifestó que ya llamaría la atención de los municipales sobre tal particular".*



TXISTULARIAK

Ansolarrena da Lekeitioko txistulari dinastia ospetsuena. Aintzindaria, Roman Ansola Egaña, Bergaran jaio zen 1809an eta Lekeition ezkondu 1833an Josefa Joaquina Belaunzaran Goitizekin. Ordurako Lekeitioko dantbolindaria zen (*tamborilero*), ziurrenik 1831ko abuztuaren 31an hasi zen Lekeition lanean. 1879ra arte bera izan zen txistulari nagusia, eta hil zenean seme PioK "heredatu" zuen kargua. Hori gutxi balitz bigarren txistulariaren postua Ramonek, beste semeak, lortu zuen -hirugarren anaia bat ere, Mamerto, txistularia izan zen-. Bi anaiak izan ziren Udaleko txistulariak, nominadunak, harik eta Ramon 1906an hil zen arte. Pioen seme Victorrek, osaba Ramon gaixorik egon zenean ordezkatu zuenak, hil zenean haren postua eskatu zuen baina ez dugu uste eman ziotenik. 1912an Santiago Zapiraini eman zitzaion Ramon hil zenetik eman barik zegoen postua. 1915eko martxoan Pio Ansola, 45 urtez lanean aritu eta gero, "jubilatua" egin zen eta postua seme Victorri eman zitzaion. 27 urte zeuzkan orduan Victorrek. Atabalarriak (*tambor*) ere dinastia izan zuen. Urte askotan Jose Kortabitarte izan zen atabala, 1857an hasi zen lanean eta 1895ean hil arte jarraitu zuen. Hil zenean bere seme? Cruz Kortabitarte aukeratu zuten. Esandakoa kontuan izanda, txistulari nagusia Pio Ansola bada eta gaztea Santi Zapirain 1912 eta 1914 artekoa da argazkia.

DANTZARIAK

Primo de Riveraren diktaduraren ostean abertzaleak berriro lanean jarri ziren eta hainbat urtetan debekatuta egon ziren jarduerak berreskuratu ziren, euren artean Ezpatadantza talde hau. Eusebio Akordarmenterari kasu egingo diogu partaideak ondo ezagutu zituelako esperantzaz eta konfidantzaz. Bere hitzak:

Lenhengo aldiz Primo de Riveraren Diktadura ostean, Bigarren Errepublikara garaiko San Juan egunean 1931ko Ekainak 24

Ezkerretik eskuinera: Jose Sesma, Alberto Akarregi, Pedro Zarzoso, Simon Sesma (4.) Jesus Campanero, Tomas Kortazar, Enrique Akordarmenteria, Alejandro Zamora, Andres Itza, Jacinto Abaroa, Hilario Arrasate (11.), Angel Andonegi, Kepa Gabiola, Aurora Zarzoso, Rosa Zarzoso, Victor Arrasate, Margarita Kortabitarte, Tomas Sesma, Iñaki Eiguren, Esperanza Sesma, Maria Luisa Ruiz, Pilar Akordarmenteria, Miren Tere Eiguren, Maria Luisa Itza

1980n Lekeition





Clotilde bapora Donostiako portuan. Ricardo Martín, 1917. Kutxa Fototeka

BAPOR CLOTILDE

Argazki horretan Lekeitioko kantako bapora ageri da Donostiako portuan 1917an.

Oraingo honetan ez ziren joan Donostiara etxadia egitera, Santa Ana arrantzontziko naufragoak bueltatzera baino. Peio Urrutiaren "Entre el mar y la canción: perros de agua en el puerto donostiarra" artikuluari jarraituz izendatuko dut tripulazioa: Benito Iturraspe Larrinaga (Toba), Toribio Anakabe Iturraspe (Laba), Mariano Goenaga Murelaga, Pedro Santamaria Omar, Nicasio Santamaria Omar, Severo Agirre Urkiola, Pedro Anakabe Iturraspe (Laba), Ankeñño Eskurza Aboitz, Felix Txopitea, Pedro Aboitz Anakabe, Pedro Juan Anakabe eta txakurra.

Lelengo bapor Clotilde lelengo (bis) bapor Clotilde etxadia eitteko



ANTZARRAK

Hemen dugu XX. mende hasierako -1920 aurrekoa- antzar eguneko argazki bat. Ezaguna da baina berriro dakargu ezin hobeto ikusten delako harrapatzailea airean hegan. Antzarrei buruzko ezagutzen dugun aipamenik zaharrena, momentuz, 1631koa da eta Lekeitioko Elizako fabrika-kontuetan aurkitzen da, baina ez dakigu uretan ala lehorrean jokatu ziren; 1666an eta 67an, berriz, badirudi itsasoan jokatu zirela². Lekeitioko Udaleko kontuetan 1722ra arte ez da agertzen aipamenik baina horrek ez du esan nahi lehenago antolatatu ez zirenik. Nahiz eta askotan hitz egindako gaia den, oraindik gutxi dakigu antzar jokoaz. Kurik 4an kolpeko diogu gaiari.

1 Elizako Lekeitioko Santa Maria elizako fabrika liburuan agertzen diren 1631ko gastuen artean agertzen dira: "yten da por descargo haber gastado en hacer el tablado para la dicha comedia sesenta y seis reales y la danza troqueada cincuenta reales y los gansos que se trajeron para correr y el tamborin cuarenta y cuatro reales".

2 Elizako Lekeitioko Santa Maria elizako fabrika liburuan agertzen diren 1666 eta 67ko gastuen artean agertzen dira, 1666an: "y cuatro gansos y un refresco que les dio a los marineros en las fiestas de esta iglesia y día de San Roque eta 1667an "que pagué por tres gansos" eta "yten diez reales que gaste con los marineros que los corrieron".



PORTUKO ZUBIA

1884-88 arteko argazkia izan behar du batetik elizape berria amaituta ikusten delako eta bestetik oraindik portu zaharra ageri delako. Portu berria erai-ki arte hondartza Udaletxe alboraino heltzen zen, beraz ia bikoiztu egiten zuen gaur egungoaren luzera plaza estutuz. Ikusten dira baita: hondartzako aldagelak (udaldia zihurrenik), erre aurreko Torregrosaren jauregia bukaera piramidal bakar horrekin, hondartzara bajatzeko arrapala eta eskailerak, portu kanpoko etxeak uraren gainean, eta batez ere, moilako "zubitxo" arraro hori.

Zubitxo horren jatorria XIX. mende hasieran aurkitzen da, portuan are gehiegi pilatzen zen eta kanpora ateratzeko modu hori asmatu zuten. Arazo larria zen, Lazunarriko moila ere hori konpontzeko egin zen eta dirutzak gastatu ziren. Juan Bautista Belaunzaran arkitektoari eskatu zitzaion obraren kargu egitea¹.

1 LUA/Udal aktak, 1803-10-23


Se presento y leio un memorial que su thenor a la letra es como se sigue= M. N. y M. L. Villa de Lequeitio= Pedro Martin de Ytza Maiordomo de la Cofradia de Mareantes de San Pedro de V. II. con el mayor respecto expongo que consistiendo el bienestar de un puerto en la maior parte en tener la agua necesaria para que las chalupas y embarcaciones se hallen en flote para con este beneficio poder salir y entrar en el; Se experimenta que en el parage de entre muelles de este Puerto llamado el Cay en donde suelen asegurar las chalupas y embarcaciones asi del Pueblo como forasteras, son tan abundantes las Arenas que han acarreado y acarrean las aguas con las Mareas por la entrada de la Naza que jamas se ha conocido un exceso semejante...

Es tan fatal la situacion del dia en este Puerto con motibo del exceso de arena en el Cay, que para poder salir las Lanchas a sus diarias pescas en las temporadas de las aguas que llaman muertas tienen que aguardar a la marea pleamar porque antes no se flotan sino unas quantas que estan en las proximidades de la Naza...

El medio pues menos costoso y mas a proposito para el remedio, conciben los mareantes, sería el hacer una abertura al muelle del Cay de acia la parte de la casa torre de Medrano a sus inmediaciones a efecto de que la misma agua de la marea que trae las arenas al referido sitio, sea instrumento para expelerlas y sacarlas acia la parte del Arenal, poniendo sobre la abertura (mientras se considere necesaria el que asi subsista) unas tablas o cosa equibalete para el transito de gentes en aquel Muelle...

Y enterados por menor de su contenido: acordaron, que accediendo como desde luego acceden a la pretension de dicho memorial...





HONDARTZAKO KAIKETAK

Edade bateko lekeitiarrok beti ezagutu ditugu kaixetak hondartza bietan, Isuntzan eta Karraspion, orain dela urte batzuk kenarazi arte. Ja 1851n argitaratutako kronika batean, El Popular, Madrid, 1851-6-4 zera esaten zen: "Para desnudarse y vestirse al abrigo del sol y del aire hay varias casillas movibles por medio de ruedas las cuales se colocan en la orilla del mar por mujeres que se ocupan de acompañar al baño á las señoras tímidas, pagando solamente medio real por persona." Erreal erdi mauka izango zen, urte gutxi batzuk beranduago, 1864an, Juan Delmasi jarraituz, Guia histórico-descriptiva del viajero en el Señorío de Vizcaya, tarifak asko igota baitzeuden: "Para el servicio de la primera hay unas veinte casetas cuyos dueños cuidan de preparar la ropa y de acompañar al bañista á sumergirse en las aguas; mas como estas están siempre tranquilas en este punto, ó se baña solo ó se sirve de mujeres. La caseta cuesta un real, y dos mas el servicio de la persona".

Lehenengo ahaleginak ziren eta Antonio Cavanillesi, Lequeitio en 1857, kasu egiten badiogu erruduna Celestino Garate azpeltiara izan zen: "El que desee buen alojamiento, el que dude algo, el que apetezca cualquier objeto de Bilbao ó San Sebastian, el que trate de hacer algun viaje, el que quiera bañarse, el que intente hacer una escursion por mar, todos, todos forzosamente tienen que tratar con Polka. Polka es un tipo; comisionista, bañero, propietario de 12 casillas y de un carrito en que lleva á los bañistas por el arenal, y de un bote en que los pasea, tiene una tienda en que vende cigarros, otra en que vende vino, un café y villar para los marineros...".

Gero denok dakigunez Isabel II.a erregina etorri zen 1868an eta 1883an errepikatuko zuen. Jakina, haren aldagela (bañera hitzez ezagutzen zen) ez zen edozer gero! Lehenengoa Zarautzetik ekarri zioten, aurreko urtean Zarautzen erabili zuena aprobetxatuz, hori bai dotoretuta. Berarekin ekarri zituen gortesauentzat beste 6 aldagela egin ziren. Isabel atzerriratu zutenean aldagela bodega batean geratu zen part botata! 1883an bueltatu zen eta ordukoa izan behar da Leku Ederreko argazki ospetsua girolan oraindik obretan dabilta eta. Aldagela seguruenik Torregrosako kondearena izango zen, ordurako Isabel II.a erregina-ama baino ez zen eta!

Oraintsu beste argazki bat heldu zaizkigu, baliteke Isabelek 1883an erabili zuen kaseta izatea. Maritxu Salinasen memoriak -1909an jaio zen eta txikitik bizitakoak dakartzta gogora- erabili ditugu gehiago jakiteko: "En la playa no había ninguna caseta. Sólo la de mi madre. Era una caseta con dos torres, una roja y la otra verde. La había utilizado Isabel II cuando después del exilio pasó algún verano en el pueblo, invitada por el Ayuntamiento para convencerla de que interviniera a favor de la financiación de las obras de reforma del puerto. Cuando dejó de venir, se guardó la caseta en los sótanos del palacio del tío Jaime. Éste, viendo que allí no hacía más que estorbar, se la regaló a mi madre y ésta la colocó al final de la playa. Ante la caseta clavábamos al principio del verano cuatro postes bien metidos en la arena. Las muchachas por la mañana bajaban a la playa y colocaban el toldo amarillo y blanco a rayas que por las tardes guardaban en la caseta. El toldo quedaba unido a ésta, como hoy se unen a las rulotes las tiendas de campaña. Bajo el toldo ponía mi madre una mesita y varias sillas y allí celebraba su tertulia con los mayores. Nosotros no nos acercamos a esas reuniones hasta que tuvimos cierta edad. La caseta aparece en la fotografía que hay en el Lekueder, una de las más antiguas y sin duda la más bonita que hay de Lekeitio. Esa caseta la conservamos hasta finales de los años cincuenta y últimamente la compartíamos con los Canales. En invierno la desmontábamos. Como las torrecitas ocupaban mucho y no cabían en nuestra bodega, se guardaban en la cochera de Pilar Manso".

1 Telegrama

Diputacion de Guipuzcoa

Debiendo llegar en breve S.M. y no habiendo apenas tiempo para construir una caseta de baños rogámosla se sirva manifestar si puede ceder la que usaron en Zarauz las augustas personas.

Si no se conservara desearíamos tener las dimensiones y demas circunstancias.

Urgente la contestacion. Bilbao 26 de Junio de 1868

PASKUAL ABAROA

Hor duzue Moises Huerta eskultorea Paskual Abaroaren monumentua prestatzen, dokumentu ederra benetan! 1934. urtea da, urte horretako maiatzean aukeratu baitzuten Huertaren proiektua lehiaketan. Parte hartu zutenen artean Amann arkitektoa monumentuak eragindako obrez arduratu zena eta R. M. Azkue idazkuna idatzi zuena (Lekeitiarrak geure ongille andi eta erritar maite Abaroa tar Paskali esker on sakonaren gomutagarritzat 15-VIII-1934). Abuztuan inauguratzeko ziren baina azkenean irailaren 7ra atzeratu zen. 11:30ean Udaletxean batu zen udalbatza Pascual Abaroa herriko seme izendatzeko (hijo benemerito y predilecto), 12:00ak aldean izan zen zeremonia eta ordu batean bueltatu ziren Udaletxera oraingoan dimisioa aurkezteko. Udalkide guztiek dimititu zuten, Alejandro Eizagirrek izan ezik.

LUA/Udal aktak, 1934-8-7: *“Una suscripción general, reforzada por generosas subvenciones del Ayuntamiento, ha permitido la erección de un precioso monumento público colocado en el lugar preeminente que Abaroa merece. La obra, adjudicada en refido concurso, se debe al genio artístico del inspirado Escultor Don Moisés de Huerta, que ha sabido imprimir en piedras y bronce un canto perenne en loor del hombre humanitario y generoso, del gran Abaroa. Una soberbia figura de Don Pascual, en bronce fundido, reposa en actitud tranquila y serena sobre recio pedestal pétreo, dirigiendo su mirada paternal al barrio de sus amores, que es el habitado por las familias marineras”.*



Kaxarranka, A. Guerequiz-en argazkia. Hauser y Meneten fototipia. Biblioteca Nacionala, Madril

KAXARRANKA

Horiek izango dira ezagutzen ditugun Kaxarrankaren argazkirik zaharrenak, bata XIX. mende amaierakoa!, bestea 1926koa (dantzari Ignacio Murelaga), biak Sanpedropean santuaren aurrean ateratakoak. Ez dirudi kasualitatea bitarteko argazkirik ez izatea (baleude pozik hartuko genituzke, hipotesia izorratu arren). 1920ko hamarraldian gure ondarearenganako interesa berreskuratuko da, batez ere Juan Irigoienen eskutik. Haren ikerketek eta artikuluek berpiztu zuten Lekeitioko historiarenganako zaletasuna. Urriolabeitiak eta Eguzkitzak geroxeago lagunduko zuten.



Kaxarranka, 1926. Dantzari Ignacio Murelaga, txistulari Santi Zapirain eta Bittor Ansola eta atabalari Cruz Kortabitarte



LA VUELTA DEL MUNDO



GLOBETROTTERS

1920. hamarkadan lehen mundu gerra amaitu ondoren ibiltariz bete zen mundua eta Lekeitiora ere heldu ziren batzuk. 1925eko kontu liburuetan aurkitu ditugu lehenak, alemaniarak, Erich Beyer, eta Hermann Groth eta bere emaztea, eta austriarra Prötsch Ludwig. Hurrengo urtean Scodro Angelo, A. Mossel eta emaztea holandarrak, bizikletan hauek, eta Domingo Mirnay hungariarra? hurreratu zitzaizkigun. 1927an biolina jotzen zuen Lazaroff delako bat. 1928an Carlos Bracun austriarra. Eta 1929an Arturo Winterfeld alemaniarra. Azken honek mundu-bira 1900-15 artean egin zuen baina etxean asperitu egiten zela eta bigarren bidaia hasi zuen 1925-7-lean eta 1935eko urtarilaren 1ean bukatzeko asmoa zuen. Alemaniarraren puntualtasunak ingelesena gainditzen du!

TXIRRINDULARIAK

Tertjuan zebiltzan beheko argazki-koak gurgil biren gainean. Argazki hau atera zenerako, 1920ko hamarraldirako, bizikletaren arrakasta geldiezin zen. Egia esan, ordurako askak 100 urte zeuzkan baina gurean XX. mende hasieraraino ez zen zabaldu. 1913an plazan bizikletan ibiltzea debekatu zuen Udalak jadanik bizikleta gehiegi zeudelako eta ez zirelako behar bezala erabiltzen. Argazki honek balio handia du, bate-tik partaideen izen abizenak agertzen direlako eta bestetik bizikletazaleen artean bi emakume agertzen direlako, Julia Arrinda eta Rosario Arana, mundua aldatzen ari zen seinale.



1 Juan Telleria, 2 Ramon Solano, 3 Jose Goikoetxea, 4 Leon Aranzamendi (Loibe), 5 Jose Leturia, 6 Jose Maria Egurrola, 7 Teodoro Abaroa, 8 Julia Arrinda, 9 Martin Laka, 10 Teodoro Laka, 11 Rosario Arana, 12 Miguel Koskorrotza, 13 Norberto Mendezona, 14 Ramon Anduiza, 15 Jacinto Garamendi, 16 Rodrigo Adan de Yarza, 17 Eusebio Gonzalez



IRAGARKIAK

Hemengo enpresa eta negozioek ez zuten publizitatea larregi erabili. Ez eta goizegi ere, 1917koa da publizitatea erabiliko duen lehen jai-egitaraua. Hala ere, pixkanaka, gero eta arruntago bilakatu zen iragarkien erabilera eta esaterako 1922-9-13an *El Pueblo Vasco* egunkarian (ikus 226. or.) Lekeitio-ko zenbait negozio agertu ziren. Guri Lekeitio-ko irudiak erabili zituzten iragarkiak interesatzen zaizkigu. Onena, duda barik, Fausto Ibañez Aldekoatarren *Itxasgaña* txakoliaren iragarkia, ¿Obarik bai?, Jose Arruek egina. Garavillatarren *La Activa* enpresarenak ere onak dira (ikus 107. or.), Okamikatarren *La Universal* markarena ez da eskasa eta Rodriguezena beno.... Zer ez zuen saltzen Jesús Rodríguez Garín latorrigileak -zenbat tildel- Abaroa kalean zeukan denda!



JESUS RODRÍGUEZ GARÍN



MASTA PUNTA

Udaletxeko paperen artean aurkitu dugun lehen aipamena 1856koa da eta ordutik aurrera sarritan agertuko da jaietan egiten ziren jokoan artean. Antzarrekin batera *pack* berean joan izan dira aspaldidanik.

1893an Almorrek esaten zuenak balio digu gaur egunean ere: *"A continuación pudimos ver la agilidad y destreza de algunos mozos que, haciendo excelentes equilibrios, pretendían arrancar la bandera izada en el extremo de un mastil, previamente untado de resbaladizo sebo, y que situaron, avanzando horizontalmente desde el muelle, sobre las aguas del puerto, y a la entrada del mismo..."*.

Hori itsasoko masta-punta zen baina urte askotan lurreko masta-punta jokatu zen, inoiz urte eta jai berean biak.

Antza denez, Sarean irakurri dugu, jatorri italiarra du, Napoleosen sortua XVI-XVII. mendean baina lurreko masta-puntaz ari gara. Itsasokoari buruz ez dugu ezer aurkitu, bakar-bakarrik Sevillan egiten dena 1852an sortu zela M^a Cristina Orleanskoaren jaiotza-aren ospakizunen artean. Handik etorriko zen gurera? Edo lehena-gotik ezagutzen genuen?



ONTZIOLAK

El Noticiero Bilbaino, 1916-11-28

Botadura de un velero

Con gran animación se verificó anteayer en Lequeitio el lanzamiento al agua de un nuevo velero auxiliar, que fué bautizado con el nombre de Comercio.

Las características de este nuevo barco son las siguientes:

Eslora 21,40 metros, manga 5,80, puntal 2,60 y tonelaje 80. Irá provisto de una máquina auxiliar de vapor de 20 caballos con su caldera de 30.

El Comercio quedará destinado al servicio de cabotaje y su patrón será el experto marino D. Leocadio Andonegui, acompañado de otros cinco tripulantes.

Mendietarren ontziolan egin zen "Comercio" ontzia. Luis Javier Escudero Dominguez-en artikulua "El astillero Mendieta de Lekeitio, singular exponente de la carpintería de ribera del Cantábrico" gomendatzen dizuegu Mendietarren gainean gehiago jakiteko.

UDALBATZAK

Taldeko argazkiak mundialak izaten dira agertzen direnak ezagutzen ditugunean. Zoriturrez gehienetan ez da hala gertatzen ez delako argazkian informazio hori batzen. Udalkideen argazkietan behintzat, alkate eta kontzejalen izenak ezagutzen ditugu nahiz eta batzuetan ez dakigun nor den nor. Hona hemen guk ezagutzen dugun Lekeitioko udalbatza bateko argazkirik zaharrena, ziurrenik 1907koa.



Udalbatza, 1907-08

Alkate: Bruno Larrazabal

Alkateorde: Juan Zabala eta Tomas Andonegi

Kontzejal: Francisco Leturia, Victor Zapirain, Santiago Mendiguren, Antonio Ibarra, Damaso Garramendi, Crescencio Arrinda, Buenaventura Aranberri eta Juan Etxebarrieta

Eta beste hori ziurrenik 1914koa urte horretan aukeratu baitzuten alkate Manuel Garavilla.



Udalbatza, 1914-15

Alkate: Manuel Garavilla
Alkateorde: Javier Amias eta Gregorio Chopitea
Kontzejal: Jose D^o Odiaga, Javier Acarregui, Juan Bengoechea, Juan Mellica, Bruno Larrazabal, Modesto Cincunegui, Pedro Juan Andonegui, Jose Maria Bilbao eta Juan Zabala

ALGORTATARRAK

Hemen duzue Lekeitioko familia bat, Algortatarrena, 1895. urtean. Genealogia kontuak korapilotsuak izaten dira, geroago agertuko den albuma hobeto ulertzeko balioko digu argazki honek (ikus 86. or.). Familiako burua Claudio Algorta Larrucea (1817-1897) zen eta argazkian **1** zenbakiarekin agertzen da.

Haren seme-alabak ere ageri dira: **9** Angela Algorta Abaroa (1853-1930); **6** Fabian (1855-1897); **4** Pascual (1863-1936); **8** Sofia (1866-1930) eta **5** Dolores (1869-1897).

Horien senar-emazteak: **2** Augusto Maria de Borrás-Jalpi (1852- ?) Sofiarekin ezkondua; **3** Alejandro Anitua (1853-1923) Angelarekin ezkondua eta **12** Juliana Abaroa Chapartegui (1871-1950) Pascualekin ezkondua. Azkenik ilobak: **11** Jose Maria Algorta Abaroa (1891-1967); **7** Miguel Borrás-Jalpi Algorta (1892-1951); **13** Carmen Algorta Abaroa (1893-1936) eta **10** Claudio Anitua Algorta (1894-1899).



EGUNKARIAK

Labur-labur denok ulertzeko moduan Bizkaiko egunkari esanguratsuenen joera ideologikoa azalduko dizuegu artikuluko hobeto konprenitzeko:

El Noticiero Bilbaino (1875), inpartziala (posible al da?)

El Nervión (1891?, 1885?), monarkikoa

La lucha de clases (1891), sozialista

El Liberal (1901), monarkiko demokratikoa hasiera batean, gero errepublikarra. Antiklerikala

La Gaceta del Norte (1901), antiliberala, katolikoa, euskal foruen aldekoa, Euzkadi sortu aurretik abertzale askoren egunkaria

El Pueblo Vasco (1910?), maurista, kontserbadorea

Euzkadi (1913), abertzalea, katolikoa

La Tarde (1914), abertzalea (abertzaleak erosi zutenean)

Excelsior (1924), kirol egunkaria (abertzaleen eskuetan)

Eta laburrago oraindik hemeroteken azalpena. Lehen ere agertutako Sancho el Sabio Fundazioa, sanchoelsabio.eus edo zuzenean euskalmemoriadigitala.eus; Liburuklik, liburuklik.euskadi.eus eta Biblioteca Nacional de España-ri, bne.es edo zuzenean hemerotecadigital.bne.es, beste bi gehituko dizkiegu: Bizkaiko Foru liburutegi digitala (Lau Haizeetara) liburutegibiltegi.bizkaia.eus eta Atzoko prentsa digitala (izenburuen aurkibidea) edo zuzenean zorakeria hau:

<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DKPAZzokoPrentsaWEB/izenburuAurkibidea.do?lang=eu>



Aita eta alaba
La Gaceta del Norte irakurtzen

Carmen, Pascual y Angela
M^a Algorta. (Santa Lucia)
Lequeitio 1909.
Algorta familiaren artxiboa

Itsasaldean
lehor ertzean
urdin eta berde artean

